

OHIKO OSOKO BILKURA 04/22

UDALAK 2022ko APIRILAREN 26an EGINDAKO OHIZKO OSOKO BILKURAREN AKTA

ALKATEA:

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.

ALKATEORDEAK:

Koro Etxeberria Tolosa.

Oier Agirresarobe Lizaso.

Ane Ibarburu Lizeaga.

ZINEGOTZIAK:

Patxi Ibarburen Echeverria.

Martin Aldaya Olasagasti.

Isabel Sanchez Perez.

Estibaliz Sara Agirre Agirre.

Itsaso Lekuona Legorburu.

Alex Erdozia Igoa.

Andoni Amonarraiz Gómez.

Felipe Etxeberria Agirretxe.

Blanca Alberro ARanzasti

Jaione Aristregui Cao.

Lurdes López Gorrotxategi.

Ricardo Crespo Rubio.

Jesus Mari Lopez Sanchez.

2022ko apirilaren 26an ohizko osoko bilera egin da Udaletxean, arratsaldeko 18:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa idazkaria.

IDAZKARIA:

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa .

KONTU-HARTZAILEORDEA:

Aitor Sarasola Salaberria.

1. 2022KO APIRILEAN EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATEA-2022/619 2022/851 DEKRETUAK.

Alkatea: Arratsalde on. Seiak dira eta hasiera emango diogu apirileko plenoari.

Gaurko plenoan akta ez daukagu onartzeko, aurreko plenoan arazo tekniko bat egon zelako eta lortu badute ere akta guztia berreskuratzea, ez dute transkribatu. Beraz, datorren hileko plenorako izango dugu. Beraz, martxokoa eta apirilekoa izango ditugu onartzeko.

Lehenengo puntua normalean bigarrena izaten denarekin hasiko gara. Aurreko plenotik hona eman diren dekretuen zerrendaren berri-ematea da. Pasa zaizue zerrenda eta ez dakit dekreturen baten inguruan galderarik badagoen.

Ez badago ezer, aurrera egingo dugu.

2. (UG)LS.01 2 PARTZELAKO XEHETASUN AZTERLANA. BEHIN BETIKO ONARPENA.

Alkatea; Bigarren puntua LS012 partzelako xehetasun-azterlanari behin-betiko onarpena ematea da eta Mattinek azalduko digu.

Mattin Aldaia: Arratsalde on. Cintas Adhesivas Ubis enpresak badu partzela bat, eraikigarritasun eskubidea dauka oraindik eta aurkeztu zuen xehetasun-azterlana. Beraz, gaur proposatzen zaiguna da behin-betiko onarpena ematea.

Detalle bat aipatu nahi nuke. **XXXXXXXXXXXX** andereak alegazioak aurkeztu zituen zalantza dagoelako, batek esaten baitu bere lursailak direla, besteek berenak direla... Udalak ez dauka eskumenik hori epaitzeko. Horretarako arlo zibileko epaitegiak daude eta proposatzen duguna da osoko bilkurak erabakitzeko lehendabiziko puntua hori da, aurkeztutako alegazioak atzera botatzea, horretarako baitaude arlo zibileko epaitegiak. Horrez gain, xehetasun azterlan honi behin-betiko onarpena ematea da bigarren puntua.

Hirugarrena, onartutako dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiko Erregistrora bidaltzea da eta GAOean argitaratzea. Gipuzkoan tirada gehien duten egunkarietan eta Ubis eta Juana Urrestarazu Ilarretari erabaki hau jakinaraztearekin batera.

Hori da proposatzen dena.

Alkatea: Eskerrik asko, Mattin. Zerbait aipatzeko?

Andoni Amonarraiz: Dena ondo badoa eta pertsona hori auzitegietara ez badoa, eta auzitegiek arrazoia ematen ez badiote, egiten ari garen prozesua behin-betikoa izango da. Baina arrazoia ematen badiote, egin dugun bide guztia desegin beharko genuke.

Guk alde bozkatuko dugu. Gertatzen dena da azken hilabeteotan hainbat egoeratan aurkitzen ari naizela, eta egoera horietan udalek aurreiritzirik gabe hartzen dituztela erabakiak hirugarrenen inguruan, edo hirugarrenek baldintzatuta egon daitezkeela auzitegietara bideratzen duten erabakiekin. Eta kasu hau beste adibide bat da. Guk ezin dugu erabaki bata ala bestea den. Baina aspaldi saiatu ginenez bilatzen, obra-lizentzien kasuan – ez dakit gogoratuko zareten –, etxebizitza bateko maizterrek eskatu zuten jabearen abala izan dezatela, eta ezetz esan ziguten, hori ezin zela izan. Beste adibide bat da Udalak, gai zibilean eskumenik ez duenez, aurrera egiten duela eta tira, espero dezagun asmatu dela eta benetan ondo dagoela egiten ari garena.

Alkatea: Esan duzun bezala, eskumenak bakoitzak bereak ditu eta horraino egin dezakegu. Ez dakit Mattin, zerbait esateko baduzun.

Mattin Aldaia: Hemen proposatzen dena da xehetasun-azterlana, egin duten lana onartzea. Horrek ez darama berarekin norena den, eskubideak, etab. Hori beste norbaitek erabaki beharko du.

Alkatea: Honekin, hortaz, bozkatzera pasako gara.

LS012 partzelako xehetasun-azterlanaren behin-betiko onarpenaren aldeko botoak? **Aho-batez onartuta gelditzen da, beraz.**

UG)LS.01 2 PARTZELAKO XEHETASUN AZTERLANA. BEHIN BETIKO ONARPENA.

Hernaniko Udalbatzak 2011ko apirilaren 11ean behin betiko onartutako Hernaniko AASSen Berrikusketaren Testu Bateratuaren arabera, LS 01.2 partzela (UG) LS 01 arean kokatzen da. AASS hauek 1969ko irailaren 30eko Hirigintza Batzordeak onartutako "Lastaola Industriguneko Plan Partzialak" eta 1995eko maiatzaren 25ean behin betiko onartutako SUE-30.2 Areako Xehetasun Azterketak ezarritako antolamendua finkatu egiten dituzte.

Area honetako hirigintza-eraikigarritasun guztia finkatu dute AASSk bertako eraikinen formaren emaitza dena (lerroadura, okupazioa, altuera eta solairu-kopurua), onartutako Plan Partzialak eta Xehetasun Azterketak zehaztutako baldintzen eta ezaugarrien arabera, eta, nolahi ere, dagozkien eraikuntzako udal-lizentzien baldintza espezifikoetan zehaztutakoa.

Hala ere, area honetako eraikigarritasun finkatua geratzen bada ere, partzela batzuei dagokien eraikigarritasun berria gehitu behar zaie; horietan, hain zuzen, oraindik ez delako agortu Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren aurreko planeamenduan araututako eskubideak. Hauetako partzela bat LS 01.2 partzela da, Cintas Adhesivas UBIS SA-rena.

URA agentziak aldeko txostena eman du.

XXXXXXXXXXXXandreak alegazioak aurkeztu ditu (2022-1207 sarrera erregistroa).

2022ko martxoaren 31n aurkeztu du UBIS SAK Xehetasun Azterlanaren behin betiko dokumentua. Ikusi dira espedientearen dauden txostenak.

Kontuan hartu dira Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 73, 89 eta 98 artikulak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.1.c) eta 47.2. II artikulak

Kontutan hartu da TOKIKO GARAPEN BATZORDEAK aho batez 2022ko apirilaren 21ean emandako irizpena

Horiek horrela AHO BATEZ Hernaniko Osoko Bilkurak onartzen du

LEHENA. XXXXXXXXXXXXXXXandreak aurkeztutako alegazioa atzera botatzea. Aurkeztutako alegazioa arazo zibiletaz ari da, zehazki nori dagokion partzela baten jabetasunari buruz, eta udalak ez ditu eskumenak jabetzako kontuetaz erabakiak hartzeko, horretarako zibil arloko epaitegiak daude.

Bestalde, udalak hirigintza dokumentu bat izapidetzen ari da, eta dokumentu horrek jasotzen duen mugaketa Hernaniko Arau Subsidiarioen Testu Bateginarekin bat dator.

BIGARRENA.- Behin betiko onarpena ematea (UG) LS 01eko 2. partzelari buruzko Xehetasun Azterlanari. Dokumentua UBIS SAK sustatzen du eta XXXXXXXXX arkitektoak eta XXXXXXXXXXXXX abokatuak idatzi dute 2022ko martxoan.

HIRUGARRENA.- Behin betiko onartutako dokumentuaren ale bat Gipuzkoako Foru Aldundiko Erregistroa bidaltzea eta ondoren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behin betiko onarpena emateko erabakiaren testu osoa eta Xehetasun Azterlanaren Hirigintzako Arauak argitaratzea. Iragarkian Dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiko Erregistroan jaso dela adieraziko da. Erabakiaren berri ere Gipuzkoan tirada gehien duen egunkarian edota egunkarietan ematea.

LAUGARRENA- UBIS SA-ri eta XXXXXXXXXXXXXXXandreaki erabaki hau jakinaraztea.

3.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Alkatea; Honekin mozioen atalera pasako gara. Gaurkoan EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioa daukagu. Gipuzkoako garraio publikoko tarifen jaitsieraren inguruko mozioa da. Egia da EH Bildu udal taldeak aurkeztu duen mozioa dela, gero Bozeramaile Batzordean landu dugun mozioa da eta testu alternatibo batera iritsi gara, zeinetan adostasun handiagoa lortuko den.

Gai honen inguruko kokapena Korok egingo digu.

Koro Etxeberria: Arratsalde on.

Mozioaren izenburua da Gipuzkoako garraio publikoko tarifen jaitsiera aztertzea eta adostearen aldeko mozioa. Baina nori eskatzen diogu jaitsiera hori aztertzeko? Ahalmen hori Gipuzkoako Garraio Agintaritzak du. 2013an sortu zen Gipuzkoako Garraio Agintaritza. Geroztik Hernanik parte hartzen du agintaritza horretan eta erakunde horretara luzatzen den eskaera da gaurko mozio proposamena.

Horretarako tarifen eredia da gure kasuan Mugi deitzen dena. Gaur egun, uste dut, gipuzkoar guztiok ezagutzen dugula txartela. Oso erabilia da. Oso ezaguna da. Oso zabaldua dagoena. Eta uste dut gaur egun jada mundu guztiak erabiltzen duena, ez bakarrik Gipuzkoan, momentu honetan Gipuzkoatik arago ere erabili daitekeen txartela baita Gipuzkoako Garraio Agintaritzak egindako kudeaketa eta erabakien ondorioz. Era berean txartel hori erabiltzen da errepideko garraioetan, autobusetan etab., eta lortu zen bai Euskotren eta bai Renferekin ere akordioak egitea, tarifa bateratu hori erabili ahal izateko, txartel hori erabili ahal izateko.

Hori esanda, esan behar da, hemen agertzen den bezala, Gipuzkoako komunitatearen biztanleen ia %80ko fidelizazioa duela. Ikaragarria da. Aipatzen genuen mundu guztiak ezagutu eta erabiltzen duela eta hori horrela da. Gipuzkoako Garraio Agintaritzan parte hartzen dugun herri asko gara, ez bakarrik interurbanoak parte hartzen dutelako, baizik eta herri busek ere bertan parte hartzen dutelako. Zentzu horretan herri asko dira agintaritzan parte hartzen dugunok.

Mugi sistema nik uste dela, seguru asko, Estatuan eta Europan ere sortu zen lehenengoetako bat; eta esango nuke, hiru helburu edo arrazoi indartsu dituela mozio honek. Bata da sistema bera egonkortzea, kentsolidatzea, sustatzea baina era berean momentua iritsi da – gero puntutan aipatzen den bezala – horren inguruko hausnarketa bat egiteko, eta moldaketak eta hobekuntzak egiteko. Bi, uste dut oraingo honetan ere proposatzen dena eta nahi dena da erabiltzaile gehiago hurbiltzea Mugi txartelera, sistema honetara. Alegia, nik uste, egia da pandemiak eragin handia izan duela eta jo duela zentzu honetan ere, eta erabiltzaile asko murriztu da, baina horiek berreskuratzeaz gain, arago joan behar dugu eta lortu erabiltzaile gehiago hurbiltzea sistema honetara. Eta hirugarrena beste arrazoi handi bat da guk orain daukagun ingurumen arazoari aurre egiteko ere kotxeak nolabait errepideetatik ateratzea, eta CO2 emisio ahalik eta gutxien sortzea.

Uste dut honen guztiaren atzean hiru arrazoi sendo horiek daudela. Hori da, nolabait, bultzatu nahi duguna tarifa murrizketa honekin. Ahalik eta erabiltzaile gehien hurbiltzea eta jendeak ahalik eta gutxien erabiltzea kotxea, horren orde z garraio publikoaren aukera eginez.

Horretarako proposatzen dira puntu hauek:

(Mozioa).

Alkatea: Orain irakurri diren puntu hauek Bozerramaile Batzordean adostutakoak dira, ez EH Bilduk aurkeztutako lehen mozioko puntuak.

Eskerrik asko, Koro. Honen inguruan erronda irekiko dugu.

Jaione Aristregi: Kaixo, arratsalde on.

Gure taldeak mozioaren alde egingo du. Hala ere, zenbait zalantza ditugu, eta jarraian zehaztuko ditugu.

Lehenik eta behin, denboran kokatzeagatik, eskaera horiekiko interpelazio bat aurkeztu zuen gure alderdiak 2020ko azaroan Batzar Nagusietan Garraioaren Lurralde Administrazioan, eta ezetsi egin zen.

Bestalde, mozio berean laugarren zati bat sortzeari buruz hitz egiten da. Hemen ditugu zalantzak. Zer esan nahi duzu honekin? Nori zuzenduta dago? Zein baldintzatan? Ez da informazio askorik ematen laugarren zati honi buruz.

Bestalde, bereziki kalteberak diren kolektibo berriei buruz ere hitz egiten da. Eta aurrekoaren zalantza berberak sortzen zaizkigu. Zer kolektibori ari zarete "kolektibo berriak" diozuenean?

Eta, zehazte aldera, mozio honetako E puntuan, Korok ondo azaldu duen bezala, desoreka ekonomikoa, funtsean, Bidegik finantzatzea eskatzen da, kobratutako bidesarien bidez. Hori jasota dago 1/2011 Foru Arauan, bigarren xedapen gehigarrian, eta Europako Parlamentuak 2006ko maiatzaren 17an emandako zuzentarau batetik dator. Zuzentarau horren arabera, estatu kideek zehaztuko dute zuzentarauak sortutako diru-sarreraren erabilera. Diru-sarrera horien kanpo-kostuak edo finantza-balioaren baliokidea garraio-sektorearen mesedetan erabili beharko lirateke, garraio-sistemak optimizatuz. Beraz, argi geratzen da diru-sarrera horiek ez direla erabili behar defizitak finantzatzeko, modu iraunkorrakoak sustatzeko baizik. Adibidez, errepideko garraio publikoa edo trenbidea.

Eta hortik 10 urte igaro dira Foru Araua gauzatu ez dela.

Bukatzeko, gure taldeak ere, 2021eko urriaren 13an, Batzar Nagusietan, Foru Arau berari buruzko interpelazioa egin zuen berriro, baina hura ere baztertu egin zuten.

Pozten gaitu lanean denbora asko daramagun gai bat beste talde politiko batzuek ere babesteak.

Gure taldeak alde bozkatuko du.

Andoni Amonarraiz: Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren osaketa honakoa da: %45 Eusko Jaurlaritzarena, %45 Gipuzkoako Foru Aldundiarena, %5 Donostiako Udalarena, eta portzentaje desberdinak Irun, Errenteria, Eibar, Zarautz, Arrasate, Hernani, Lasarte, Oñati eta Oiartzungo Udalena.

Hori esan ondoren, eta orain moziari puntuz puntu helduz, lehenengo puntuan hau dio: "Hurrengo bi ekitaldietan tarifaren prezioei eustea adostea, garraio publikoaren erabiltzaileek beren soldatekin aurre egin ez diezaioten energiaren, erregaien eta Gipuzkoako gizarteari eragiten dion inflazio handiaren igoera eragin duen krisiari". Guk uste dugu agian ez dela egokia kostu hori guztia erabiltzaileen esku geratzea, baina dena beste herritar guztiengan erortzea ere ez zaigu egokia iruditzen. Erabiltzaileek zerbait ordaindu beharko lukete.

Hurrengo puntuari dagokionez, "Mugiko deskontu-sistemaren aldaketa onartzea, haren progresibitatean eta justizia sozialean sakontzeko, laugarren zatia barne hartuta". Tira, beste zalantza bat hemen: zer da laugarren zati hori? Ez dugu ideiarik ere zer den laugarren zatia. Baina azpimarratu nahi dugu, 2011tik 2015era, EH Bilduk Garraioko Lurralde Agintaritzan

gehiengo osoa lortu zuela Aldundia, Donostiako Udala eta hainbat udalerrri gobernatu zituenean. Lasai jar zezakeen martxan. Organo horretan gehiengo osoa zuelako.

Bestalde, Hernaniko Udalak Gipuzkoako garraio-sisteman zerbitzu guztiak berreskuratzearen aldeko apustua egin du, erabiltzaile kopurua murriztearen ondorioz arriskuan egon direnak barne. Nik uste dut puntu hori eta hurrengoari erreparatuz, diru publikoaren kudeatzaileak garela eta gastu publikoa arrazionalizatu beharko genukeela. Agentzia horrek kolaboratzaile deitzen dituenak ditu Almerian, Asturiasen, Bartzelonan, Bizkaian, Cadizen, Kanariar Uharteetan, Gironan, Granadan, Jaenen, Lleidan, Madrilen, Malagan, Murtzian, Sevillan, Tarragonan, Zaragozan, Stockholmen, Milanen, Turinen, Montrealen, Lisboan, Budapesten, Dublinen, Kopenhagen, Bruselan, Pragan, Amsterdam, Mexikon, Yorkshiren, Vienan, eta zenbait laguntzaile ditu. Pentsatzen dut hauen eta hemen daudenen artean aholkuak emango dizkiela organoaren kudeaketa egokia izan dadin.

Baina, berriro diot, gastu publikoa arrazionalizatu behar dugu, eta zerbitzu publikoekin herritarrei zerbitzua eman. Aztertu beharko da zer bide edo zer erabaki hartzen ditugun, ahal izanez gero, behar guztiak betetzeko; baina uste dut jakin badakigula badirela agian ase ezin ditugun beharrak.

Eta, azkenik, azken puntuan honako hau jartzen du: "Horrek guztiak tarifa-sistemaren kostuak handitzea ekar dezakeela jakinda, martxoaren 29ko 1/2011 Foru Arau bat aplikatzeko esaten da". 2011ko ekainean, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udala gobernatu zituen EH Bilduk, eta dekretu hori lasai aktiba zitekeen. Eta PSOEk babesten duen mozioari dagokionez, adierazi nahi dugu alderdi sozialista Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza osatzen duten organoen %95ean dagoela: Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala... %95ean baino gehiagotan dago, beste udalerrri batzuetan ere badagoelako. Eta EAJrekin koalizioan gobernatzen du. Uste dugu badirela beste bide batzuk gobernuakideekin adosteko haien artean egon daitezkeen desberdintasunak. Uste dugu udaletara mozioak ekartzea baino egokiagoa dela.

Hala ere, gu abstenitu egingo gara. Ez dugu kontra bozkatuko. Izan ere, garraio publikoa hobetzeko lan egin behar da beti, baina mozio honek ez dakit asko laguntzen duen horretan.

Alkatea: Eskerrik asko, Andoni.

Koro Etxeberria: Tramoen kontuarekin zalantzak sortu dira. Seguru asko, Ricardok nik baino hobeto azalduko dizue berak parte hartu izan duelako Aldundiko garraio sailean eta zein diren tramoak etab. Tramoak dira, 1etik 10era, 10etik 20ra eta horrela 40ra arte uste dut daukagula. Buruz ari naiz orain. Uste dut 1etik 20ra, 20tik 40ra eta (...). Orduan kontua da beste tramo bat sortzea, zenbat eta gehiago erabili, orduan eta merkeago izan dadin garraioa. Hori da aipatzen den tramo. Orain arte hiru existitzen dira eta orain proposatzen da beste bat erabileraren arabera merketzeko. Hori da, besterik ez.

Hemen ez da esaten zenbatekoa izan behar duen tramo horrek eta nondik nora izan behar duen, baizik eta aztertzeko esaten da. Proposatzen da sortzea laugarren tramo bat. Hemen ez da ezer konkreturik eskatzen.

Jaione, zuk aipatzen zenuen taldeena, jubilatuek dute laguntza bat, gazteek txartel bat dute. Horrelako beste kolektibo batzuk ere aztertzea eta horrekin batera sustatzea garraio publikoan onurak izan ditzaten. Aipatu daitezke bat baino gehiago. Izan daiteke, ez dakit, lanera egunero ez dakit nora doan kolektibo bat. Adibidez. Asmatzen ari naiz, baina imajinatu, horrelakoak.

Horretan sakondu nahi da eta hori da hemen proposatzen dena. Areago joatea eta ez gelditzea daukagunarekin. Baizik eta gehiago sakontzea.

Ni pixka bat harritzen nau EAJren interbentzioak, esaten duenean mozioak herrietan aurkezteak ez duela zentzurik, edo ez dakit justu nola esan duen. Justu EAJ denean beste herrietan gai honen inguruan mozioak aurkezten ari dena. Kurioso. Oso harrigarria egiten zait aipatzea arrazionalizazioaren kontu hori, mozio horietan eskatzen ari zaretenean hainbat herritan egitea tarifa bat, justu Mugik daukan gauza onenetako bat denean tarifa bateratua, denentzat berdina izatea, etab., hori haustea proposatzen ari zaretenean. Hori haustea proposatzen ari zaretenean eta eskatzen ari zaretenean tarifa bereziak egitea leku batzuetan. Interes horren arabera ari zarete aurkezten zenbait herritan mozioak eta orain esaten duzu, justu, hau aurkeztea ez dela bidezkoa eta Hernaniko herriak horren inguruan bere iritzia eta bere posizionamendua Garraio Agintaritzara eramatea. Ez dut ulertzen. Uste dut oso kontraesankorra dela zure postura.

Ricardo Crespo: Kaixo, eskerrik asko.

Korok esan du nik hobeto azal dezakedala. Buruz ez ditut zatiak oroitzen, baina benetan eskatzen ari dena da Mugiren filosofiari eutsiko dion laugarren tarte bat egotea. Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta merkeagoa izango da. Gainera, Korok ondo ezagutzen du, eta gainontzekoek ere ondo ezagutu beharko zenukete, erabaki horiek ez direla arinkeriaz hartzen. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzara joaten da, azterlanak egiten dira, oso azterlan sakonak, eta hortik aurrera erabakiak hartzen dira erakunde bakoitzaren partaidetza-portzentajearen oinarrituta. Eta ez hori bakarrik, gero Batzar Nagusietara joaten da, zeinetan denok gauden, bakoitza egokitu zaion ordezkari kopuruarekin; eta hor, eztabaidatu ere egiten da. Beraz, tramo hori zein den erabakita dagoenean, ulertzen dut alderdi politiko guztiek eztabaidatu, kritikatu, ekarpenak egin edo egoki uste dutena egin ahal izango dutela.

Zerbitzu horrek sor dezakeen defizita aipatu da. Erakundeek ematen dituzten zerbitzu guztien kasuan bezala. Erakundeek ematen dituzten zerbitzu gehienak, denak ez esatearren, defizitarioak dira. Eta nola finantzatzen dira? Aurrekontuekin.

Kontua da hemen beste tresna bat dugula, bide-sariekin eman dezaketen onura erabiltzea. Aizu, zergatik ez erabili? Etekinak ematen baditu, hortik aterako ez bada, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuetatik aterako da. Beraz, beste tresna bat badugu eta erabil badaiteke, primeran.

Korok ondo zioen bezala, EAJk hainbat udaletan aurkeztu duen mozio bati erantzunez dator mozio hau. Gainera, Mugiren filosofia hori hautsi egiten zuen EAJrenak: garraio guztientzako tarifa bat mantentzearena. Eta mozio hau ez dakit zergatik hasi zen EAJ udaletan aurkezten. Beharbada, Bizkaiko garraio publikoak Mugi geroz eta gehiago erabiltzen hasi direla ikusten duelako, tarifa-sistema aitzindaria delako. Aitzindaria da Espainian. Eta benetan diotsuet datozen Espainiatik kanpokoak, beraiek etortzen direla galdetzera, Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritzara ez da joaten beste laguntzaile horiei galdetzera. Alderantziz da. Oso ondo funtzionatzen ari delako. Nafarroan ere antzeko sistema bat ezartzea aztertzen ari dira. Orduan, Bizkaia ere arriskuan ikusten du Bizkaibuseko tarifa-sistema. Agian horregatik da. Horregatik aurkeztu ditu mozioak EAJk hainbat udaletan.

Alkatea: Eskerrik asko, Ricardo.

Ez dakit Elkarrekin-Podemosek baduen zerbait esateko.

Andoni Amonarraiz: Akaso zerbaitegatik ez du aurkeztu mozio hau Hernaniko EAJk.

Gustuko dut zenbaitek nola hitz egiten duten beste herri batean aurkeztu denaz, beste erakunde batean... Agian Hernaniko EAJk arrazoiren bategatik ez du aurkeztu mozio hau.

Alkatea: Eskerrik asko, Andoni.

Koro Etxeberria: Lehen pasa egin zait eta Isak gogorarazi dit, apuntatuta neukan. Aipatu duzu zergatik EH Bilduk Aldundian egon zenean ez zituela martxan jarri. Nik gogorazten dizut 2013an hau martxan jarri zela EH Bilduk martxan jarri zuelako. Sistema hau EH Bilduk jarri zuen martxan Aldundian egon zenean. Eta, zorionez, denen adostasuna izan du. baina EH Bilduk jarri zuen martxan 2013an. Hori horrela da, gustatu ala ez gustatu.

Geroztik honek aurrera egin ahala, erabaki desberdin asko hartzen joan dira. Joan den urtean, besteak beste, sei urtean matraka eman ondoren, lortu zen EH Bilduk horrela eskatuta azken urteetan, esate baterako, trasbordo dohainik izatea. Baina gauzak ez dira egun batetik bestera egiten. Denbora behar izaten da eta orain gaude beste fase batean, beste behar batzuen aurrean eta beste eskaera batzuen aurrean. Eta hori da hemen planteatzen ari dena.

Orduan, orain dela 10 urte agian ezin zen orain esaten ari garena planteatu ere egin. Orain planteatzen da. Baina dena den, zuek ere hor zaudete eta egin ditzakezue gauzak.

Alkatea: Eskerrik asko, Koro.

Honekin ixten dugu erronda eta bozkatzera pasako gara. Esan bezala, Bozera maile Batzordean adostu genuen edo bat egitera iritsi ginen testu horren Gipuzkoako garraio publikoko tarifen jaitsiera aztertzearen testu adostu horren aldeko botoak? PSOE, Elkarrekin-Podemos eta EH Bildu udal taldeenak. Kontrako botoak? Ez dago. Eta abstentzioak? EAJ udal taldearenak.

Alkate-lehendakariak horren **bozketa bideratu du. Hona hemen emaitza:**

- Aldeko botoak: 14 (10 EH BILDU, 2 ELKARREKIN PODEMOS-ORAIN HERNANI, 2 PSE-EE).

- Aurkako botoak: bat ere ez.

Abstentzioak: 3 EAJ-PNV

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, **GEHIENGOZ hau erabaki da:**

Hortaz, mozioa **onartuta gelditzen da.**

“GIPUZKOAKO GARRAIO PUBLIKOKO TARIFEN JEITSIERA AZTERTU ETA ADOSTEAREN ALDEKO MOZIOA ”

MUGI tarifa-sistema Gipuzkoako tarifa-eredua da 2013tik, sortu zen urtetik, eta Gipuzkoako indar politiko gehien-gehien babes du, bai eta MUGI sisteman integratuta dauden eta garraio publikoaren arloan eskumenak dituzten erakundeena ere. MUGI tarifa-ereduak gure garraio publikoaren eredua sistema ekologiko, sozial eta demokratikoa izaten laguntzen du, Gipuzkoako herritar guztien batasun- eta kohesio-elementua da eta alderdi politikoen hartan inoiz ez bezalako adostasuna du, Gipuzkoako herritarren mugikortasunerako oinarrizko eskubidea bermatzen duen zerbitzu publikoaren eredu gisa. Hernaniko Udala eta haren indar politikoen gehiengo sistema horrekiko adostasun eta babes horien parte dira eratu zenetik.

MUGI tarifa-eredu hau 2013an abian jarritako sistema bateratu bat da, Gipuzkoako Garraioaren Agintaritzak kudeatzen du eta txartel bakar integrala dela esan daitekeen Euskadiko, Espainiako eta Europako tarifa-eredu bakarra da; izan ere, 2013tik Gipuzkoako garraio-operadore publiko guztiak daude integratuta garraio publikoa

planifikatzeko eta koordinatzeko GGLA organo bakar horretan, eta gure tarifa-ereduaren bereizgarri ahaltzuena ere jarri zuen abian: garraiorako gure MUGI TXARTELA ezartzen duen eta gure tarifa-eredua ahalduntzen dute tarifak integratzeko sistema.

Eta guztiak esaten dugunean, tarifa-eredu bakarrarekin konpromisoa hartuta duen garraibide guztiak direlako esaten dugu, inor baztertu gabe eta salbuespenik gabe: errepide-garraio publikoaren zerbitzu guztiak, bai hiriartekoak (Lurrelde eta ibilbide luzekoak), bai hiri barrukoak (Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Zarautz, Arrasate, Hernani, Lasarte-Oria, Oiartzun, Oñati eta Tolosa), bai eta tren-garraio publikoak ere (Euskotren eta Renferen aldiriko zerbitzuak).

Hernaniarrok eta beste gipuzkoar guztiok txartel bakarrarekin bidaiatzen dugu Gipuzkoako garraibide guztietan. Baina gure tarifa-ereduak ez duenez mugarik izan nahi, Araba osoan ere erabil daiteke baleko ordainketa-modu gisa, eta laster, Bizkairaino iritsiko gara. Gipuzkoako jende asko bizi da lurralde horretan —bertan ikasten edo lan egiten dutelako—, eta badira arrazoi berberengatik egunero Lurreldeus erabiltzen dutenak eta garraibide jendetsu horretan euren MUGI txartela erabili nahi dutenak ere.

Gipuzkoako tarifa-eredu horren erabilpena hedatu ahal izatearen arrazoia da MUGI erabiltzen duten pertsonen komunitatea Gipuzkoako biztanleen ia % 80ko fidelizaziora iristen dela. Horren ondorioz, MUGI tarifa-eredu bakarra da —tarifa-integrazioari esker— eredu sozial eta bidezkoa izateko baldintza guztiak betetzen dituen, ekologikoa izateaz gain.

MUGI tarifa-ereduaren bitartez:

1. Soil-soilki ordaintzen duzu erabiltzen duzunagatik
2. Zenbat eta gehiago erabili, gutxiago ordaintzen duzu.
3. Gainera, ekitatea bermatzen du gizarte-babesa izateko premiarik handiena duten kolektiboek egiten zaizkien hobariekin: adinekoei, gazteei, langabetuei, baliabide gutxi dituzten pertsoneri edo gaitasun bereziak dituztenei.

MUGI tarifa-ereduarekin nahi duzun lekura eta nahi duzun moduan bidai dezakezu, non bizi zaren eta zenbat baliabide dituzun kontuan hartu gabe. MUGI tarifa-ereduak ez baititu uzten gizarte-aurrerapenetik kanpo baliabide gutxi dituzten pertsonak. Garraio publikoaren erabiltzaile normal batek badaki MUGI zerbitzuarekin zenbat eta bidai gehiago egin, orduan eta merkeagoa dela.

Gipuzkoarrok MUGI KOMUNITATEKIDE izaten jarraitu nahi dugu, erakutsi izan dugun moduan, tarifa merkeekin eta sozialekin. Komunitate horrek beste herri batzuetako bizilagunak metropoli-eremu komun batean batzen gaitu, baita Gipuzkoako garraio publikoaren eredu sozialean txertatu ere.

COVID 19ak eragindako pandemia osteko krisi bete-betean, gutxien duten pertsoneri sufrimendua eragiten dien tentsio-giro sozial eta ekonomiko honetan, eta gobernuen ekonomia eta, batez ere, Hernaniko gizon-emakumeen eta familien ekonomia hankaz gora jartzen ari den gerra-agertoki honetan, MUGI sistema babesten jarraitu nahi dugu, garraio publikoaren erabiltzaileei lasaitasuna emanaz. Eta, bestetik, uste dugu iritsi dela MUGI SISTEMAREN tarifen ekitatean eta justizian oraindik ere gehiago sakontzeko unea, familien ekonomia ito edo zaildu dezaketenean une latzen aurrean.

Horregatik, tarifa are sozialagoak eta, beraz, progresiboagoak egitearen alde gaude; eta uste dugu 2022an, Gipuzkoako Garraioaren Agintaritzan MUGI-rako tarifak eztabaidatzen eta erabakitzen direnean, tarifa-eredu horretan beste urrats bat emateko unea izango dela.

Hernaniko Udalak irmotasunez defendatzen du garraio publikoaren sistema inoiz baino gehiago indartzeko unea dela, pandemian galdu dituen erabiltzaileak berreskuratzeaz eta erabiltzaile berriak sisteman sartzeaz gain; eta horretarako, Gipuzkoako Garraioaren Lurrelde Agintaritza osatzen duten administrazioek beharrezko neurri guztiak aztertu beharko lituzkete. Hain zuzen, GGLAren egitekoa da kalitateko mugikortasun irisgarria bultzatzea gizartearentzat eta lurralde historikoan zehar, egungo eta etorkizuneko eskaerari erantzunez.

Azaldutako guztiagatik, azpian sinatzen duten Hernaniko Udaleko Udal Taldeek erabaki hauek hartzeko proposamena egiten diote Hernaniko Udalaren Osoko Bilkurari:

Gipuzkoako Garraioaren Lurrelde Agintaritzari eskatzea, tarifak berritzean eztabaidatu eta, hala badagokio, onartzeko, honako neurri hauek:

a) Garraio publikoaren erabiltzaile ohikoenen kostua benetan murrizten laguntzeko:

- Egin daitekeen tarifa-jaitsiera eta horrek izan ditzakeen ondorioen azterketa erabakitzea eta, horren aurrean, gutxienez, hurrengo ekitaldi bietan tarifen prezioak bere horretan uztea, ez daitezen garraio publikoaren erabiltzaileak izan euren soldatekin energiaren eta erregaien igoerak eragin dituzten krisiei eta Gipuzkoako gizartea jasaten ari den inflazio altuari aurre egiten diotenak.

B)- MUGIko deskontuen sistema aldatzea, horren progresibitatean eta gizarte-justizian sakontzeko, eta laugarren tarte bat sartzea, MUGI txartelaren erabiltzaileek doakotasun handiagoa izan dezaten MUGI txartela erabiltzen den tarte guztietan.

- Etorkizunean tarifak jaisteko formulak aztertzeke eskatzea.

c) Hernaniko Udalak Gipuzkoako garraio-sistemako zerbitzu guztiak berreskuratzearen aldeko apustua egin du, baita erabiltzaileak gutxitzearen edo beste edozein erabakirengatik estualdian daudenenak ere. Horretarako, RENFEren aldiriko zerbitzuetan gertatzen ari den egoera arintzeko neurriak aztertzearen aldeko apustua egin du.

d) Hernaniko Udalak GGLAri eskatzen dio behar bestean zabal dezala bere garraio-eskaintza erabiltzaile guztien eskariei erantzuteko.

e) Kontuan izanda honek guztiak Gipuzkoako garraio publikoaren tarifa-sistemaren kostuak handitu ditzakeela, Hernaniko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Errepideen Foru Sareko bidesariei lotutako tarteetan bildutako diruaren zati bat honetara zuzen dezala eta aktiba dezala martxoaren 29ko 1/2011 Foru Arauaren Bigarren Xedapen Gehigarria, zazpigarren tituluan eta horren garapenerako dekretuan jaso, garraio publikoa sustatzeko helburuz.

4- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Alkatea; Honekin azken puntura pasako gara. Galdera eta eskariak. Ez dakit ba al dagoen galdera eskaririk.

Lurdes Lopez: Kaixo.

Nik galdera bat ekarri nahi nuen hona, auzoko emakume batek igandean egin zidana, gau osoan Lastaola inguruan egon zen autobus bat gurutzatuta, argazkia erakutsi zidan.

Gau osoan autobus handi bat han gurutzatuta, goizean joan behar izan zuten, ikusi ditut goizeko argazkiak autobusa nola zegoen gurutzatuta. Udaltzaingoaren txostenean zetorren. Ez dituzue irakurtzen, nik bai, baina argazkiak ere ikusiak nituen.

Dezenteko zalaparta sortu zuen, autobusa gurutzatu zela, ezin zutela atera, gauean bertan utzi zutela eta goizean ez dakit zenbat kilorekin kargatu behar izan zutela... Bueno, ateratzea lortu zuten, baina goizean. Nik argi askoko argazkiak ikusi ditut, ez dakit zer ordu izango zen. Galdera da: noizko egongo da Loidikoa? Noiz konponduko da hori?

Argazkiak erakutsi zizkidatenean, Loidirena bezalako gauzak ateratzen joan ziren, geldirik daramala denbora asko. Ea zerbait banekien galdegin zidan eta nik ezetz, baina galdetuko nuela.

Bestalde, kexa batzuk jarri ditut, niri iritsi zaizkidalako. Ez da nik inguru horretako jende asko ezagutzen dudala, baina ez dakit, kasualitatez, baina niri etortzen zaizkit. Altzuetan gaineko bidea, Koro, askotan azaldu dizut oso arriskutsua dela, printzipioz debekatuta dago baimenduentzat izan ezik, baina orain jende askok erabiltzen du. Bihurgunea oso txarra da, asko kexatzen dira, Udalak seinale batzuk jarri ditu, baina bihurgunean bertan. Jendeak lehenago jartzeko eskatzen dit, bihurgunera iritsi aurretik jakinaren gainean egoteko.

Alkatea: Ados. Erantzuteko. Ez nizun ulertzen, uste nuen kalean gelditu zela autobus bat zeharkatuta. Ez ez, Osinagan.

Bai, badakigu bideak nola dauden Lastaola inguruan. Badakigu bide hori alternatibo dagoela, Loidi eta Alzueta arteko bidea erorita dagoen bitartean alternatiba handik dela, nahiz eta autobusak bideratzen diren Ibarluzeko poligonoan uztera eta jendea oinez joatea. Egia da batzuk sartu egiten direla eta larunbatean sartu zen batek arazoak izan zituela ateratzeko.

Nola dagoen gaia Loidin? Urgentzia guztia emanda eta prozedura guztia martxan. Eragile guztiei, auzotarrei eta sagardogileei esaten diegun bezala: ez da hormigoi pixka bat botatzearen kontu bat. Kontu oso konplikatu da. Ibaiak errepidea jan du azpitik eta horrek eskatzen duena da azterketa sakon bat ingeniartzarena, hurrengo egunetik lanean hasiak gaudenak bai Urak-ekin, bai ingeniartzaren talde desberdinekin; eta hori martxan dago. Zoritxarrez, nahi baino denbora gehiago pasako da ez delako, esan bezala, baila bat jarri edo brea pixka bat botatzea. Delako esku-hartze nahiko potolo bat. Martxan dago.

Bigarren galdera zen Alzueta gaineko bidearena.

Koro Etxeberria: Lehenengo gaiari lotuta, Alkateak aipatu du, baina gogorarazten dizuet batzorde batean kronograma bat aurkeztu zuela, espresuki, Zerbitzu Publikoetako buruak azalduz zeintzuk ziren eman beharreko urrats guztiak eta noizko aurreikusten den hori egitea. Kronograma bat pasa zuen egin behar ziren azterketak, horrek suposatzen zuen pleguen prestaketa, Urak Agentziara bidali behar da baimena berak eman behar duelako, ondoren lizitazioa atera behar da eta gero obrak egin. Horren organigrama bat aurkeztu zen batzordean.

Esan behar dugu gauzak pixka bat gehiago aurreratu direla uste baino, eta jada Aste Santu aurreko astean, Ostegun Santuaren aurreko asteazkenean jada proiektua bagenuen eskuartean eta asteazkenean bertan Urak Agentziara bidali zen urgentziaz, ea baimena ematen duten hori martxan jartzeko.

Paraleloki, hemen lizitazioak prestatzen ari dira Urak Agentziak baimena ematen duen bezain pronto lizitatzeko eta ahal den azkarren egiteko. Beraz, ari gara ahal den guztia egiten, ahal den azkarrena egiteko urrats guztiak ematen. Orain Urak-en eskuetan dago.

Horren berri bizilagunek, inguruko sagardogileek badute eta orain horren zain gaude. Haiek onespina ematen duten bezain azkar lizitazioa martxan jarriko da eta aterako da, Udalean horretan lanean ari baitira.

Bigarren gaira pasata, beti aipatzen duzu, baina gu hara joaten garenean, denek esaten dute orain bide hori denez alternatiboa sagardotegietara iristeko, jarri ziren hiru edo lau gezi bide guztian zehar ondo seinalizatzeko. Hortik aparte zer gehiago egin daitekeen? Ez dakigu. Ez baldin bada jartzen, ez dakit nola deitzen den, *quitamiedos* edo antzeko zerbait... Baina hori ere ez da oso gomendagarria. Orduan, gauzak ez dira hain errazak. Teknikoak kontsideratu dute momentu honetan hori dela egokiena eta horrek bermatzen duela segurtasuna eremu horretan, horrela egin da.

Oso zaila da. Ari gara hitz egiten landa eremuez eta horrek asko konplikatzen ditu gauzak.

Lurdes Lopez: Ados nago oso konplikatu dela esaten duzuenean. Baina niri eskatu didatena da seinalea pixka bat lehenago jartzeko. Bihurgunean sartu baino 20 bat metro lehenago.

Alkatea: Ados, aztertuko da.

Ricardo Crespo: Autobusari buruzko iruzkin txiki bat. Joan den hilean Elorrabiko zubiari buruzko mozio bat aurkeztu genuen eta, gainera, mozio horretan esaten genuen kamioi handiek ezin izango zutela bihurgunea hartu. Eta ez dugu abisatu genuela esan nahi, baina gertatu da, zoritxarrez. Halere, gehien molestatzen nauena zera da, baieztapen horren aurrean, eserleku honetatik etorri zen komentarioa, ondoan dituanek esan baitzuten sagardogileek kamioi txikiagoak erabili beharko lituzketela. Esan ziguten sagardogileek kamioi txikiagoak erabiltzeko. Espero dut auzokoari ere hori erantzungo zenioteela.

Andoni Amonarraiz: Argazkiak ikusten ari naiz eta sekulako kamioitzarra zen. Artikulatua zela uste nuen. Agian kartelen bat jarri beharko da neurri horretako autobusek hortik ezin dutela pasa adierazteko. Ez dakit seinalerik jar daitekeen "10 metro baino gehiago" edo ez dakit zenbat, edo 5 edo 8, ez sartzeko, gurutzatuta geratuko direlako. Begira, niri argazkia bidali zidatenean, uste nuen artikulatua zela. Eta orain konturatu naiz, ez dela artikulatua, izugarri luzea zela baizik.

Alkatea: Bale. Kontutan hartzen da.

Honekin plenoaren bukaerara iritsi gara. Maiatzera arte.

Eskerrik asko, denei.